

# Canvas metodoa

## 1. Balorezko proposamena

OMSren datu batzuetan ageri da 200 litro ur kontsumitzen direla 10 minutuko dutxa batean hain zuzen ere. Gainera, organizazio honek, dutxan kontsumitzen dugun kantitate handi horren %150 gutxiago kontsumitzea gomendatzen du. Beraz, arazo honi konponbide bat jartzeko, dutxa moderno hau erabaki dugu sortzea. Gailu berri honek, dutxan erabiliko den ur kantitatea programatzen du.

Gainera produktu hau oso berritzailea eta ezberdina da gure inguruan, Espainian ez baitago honelako zerbitzua eskaintzen duen enpresarik. Eta bestalde, atzerrian, nahiz eta antzeko produktuak eskaintzen dituzten enpresak egon, gure dutxarengandik ezberdinak dira.

Dutxan zer egin behar duzun adierazi behar duzu horman egokituta dagoen pantaila batean, eta dutxak behar duzun ur kopurua kalkulatzeko, gero ur kantitate hori botatzeko. Gainera dutxa honek, sentsore batzuen bitartez funtziona dezake, honela ura alferrik gastatzea eragozten da. Sentsore hauek dutxa buruan kokatzen dira eta bere azpian jartzean automatikoki dutxa buruak ura botatzen du, eta kentzean aldiz gelditu egiten da.

Gure helburua erabiltzaileek beharrezkoa den ur kantitatea soilik erabiltzea da. Modu honetan, uraren alferrikako gastua eragotzi, eta gainera aurreztu egiten dute. Izan ere, ur kontsumoaren gaineko zerga oso altua da, eta familia askorentzat oso baliagarria izango litzateke arazo honentzako konponbide erraz eta eskuragarri bat izatea.